



Diario de Navarra, lunes, 6 de febrero de 2012

M^a del Mar Larraza, Euskal Katedraren zuzendari berria

DN Irufies

Nafarroako Unibertsitateko Euskal Hizkuntza eta Kultura Katedrak, 1963an sortuta, bere Zuzendaritza Batzarra berritu du. María del Mar Larraza Micheltorena da zuzendari berria; M^o Amor Beguiristain Gúrpide eta Luis Echarri Prim, zuzendariordeak; eta Gabriel Insausti Herrero-Velarde, idazkaria.

Katedrak, zeina Filosofia eta Letren Fakultateko parte den, bere 50. urteurrena ospatuko du. Urte hauetan eskuratutako dozentzia eta ikerketa esperientziak egungo sistema unibertsitarioaren estrukturarekin bat datozen proiektu berriei aurre egitea ahalbidetzen du. Izan ere, ikasketa unibertsitarioen planen erreformak diploma zaharren desagertzea suposatzen du, beraien artean 1993-1994tik aurrera irakasten zen Euskal



María del Mar Larraza.

NLI

Ikasketen Diploma delarik. María del Mar Larrazak azaltzen duen bezala, Katedraren eginkizuna euskararen irakaskuntzan, ikerketa etnologiko eta linguistikoan eta jarduera kulturalen sustapenean datza. "Aro berri honen helburua hainbat zentru eta fakultateen artean jarduera amankomunak aurrera eraman daitezen bultzatzea da", esaten du Larrazak.